

ELKARRIZKETA...JON MARICHALARREKIN

Jon Marichalar Echenique "Xoroko" (Sunbillan, 1980ko urtarrilarean 13an) 36



urteko gaztea da. Lacteos de Navarran ari da lanean aktualitatean, baina bere denbora librean futbol zelaian aurkituko duzun horietakoa da. Doneztebe Futbol Taldeko jokalaria izan da urte askotan, baina orain jubenilen entrenatzaile lanetan ari da Garikoitz Urrozekin batera. Gainera, zonaldeko gazteen artean horren arrakastatsua den eguberritako futbol zazpi txapelketako antolatzailea ere bada.

Elkarrizketa honetan Xorokok Donezteben egiten duen lana, bere afizioak, bere futbola ikusteko modua etab. sakonago ezagutu nahi ditugu.

GALDERA: Aupa Jon! Jokalari bezala 2006/07 denboraldian hasi zinenetik, taldearen hazkuntzaren partaide izan zara. Nola gogoratzen dituzu hasiera horiek? Nola ikusten duzu aldatu dela taldea orduztik?

ERANTZUNA: Gogoratzen dut 2006ko udan Donezteben futbol talde bat sortzeko intentzioaren zurrumurrua entzun nuela. Entrenatzailea izango zen Mikel Mairarekin solastu nintzen taldean nerretzat lekurik izanen ote zuen galdetzeko, eta baiezkoa eman zidan. Lehenengo talde hartan futboleant inoiz aritua ez zen jendea bazegoen, baita ni bezala azken urteetan futbola alde batera utzita zutenak ere. Ordura arte futboleant jokatu nahi zuenak Lesakara edo Elizondora mugitu beharra zuen. Donezteben jokatzeko aukera honek gazte askoren ilusioa berpiztu zuen. Partidu aunitz irabaziko ez genituen beharbada, baino kriston ilusioa genuen. Horrela iritsi zen debuta, baita lehenengo garaipena ere, eta bitartean entrenatuz eta hobetuz joan ginen. Bigarren urtearen amaieran Nafarroako kopa irabaztea lortu genuen. Hasieran lagun talde bat bertzerik ez zena benetako futbol talde bat bihurtu zen, eta horren emaitzak gaur egun ikusi daitezke. Taldea egunero hobetuz eta haundituz doa.

G: Jubenilen entrenatzaile izan zara azken bi urteotan Garirekin batera. Joan den denboraldian sekulako emaitzak lortu zenituzten, eta lehenengo jubenilera igotzea lortu zenuten. Aurten maila zailago batean zabilzate borrokan. Nola doa denboraldia?

E: Denboraldia hasi aurretik bagenekien urte zaila izango zela. Duela bi urte kadeteekin antzeko esperientzia bizi nuen, eta gerora begira jokalarientzat esperientzia oso baikorra dela uste dut. Aurten jubenilek lasterka gehiago egiten dute, partidu bakoitza gehiago sufritzen dute... eta azken finean, gehiago ikasten dute. Sufritzen ikasteaz gain, garaipenak gehiago dastatzen ere ikasten da. "Beste futbola" ikasten da, eta horrek egiten du bat benetako futbolari. Denboraldi hau ikaskuntza haundia izanen da guretzat, baina kategoria mantendu nahi dugu atzetik datozenek ere maila honetaz disfrutatu eta ikasi dezaten. Denboraldi honen emaitzak orain jubenil direnak erregionaletara ailegatzekin ikusiko dira, orain ereiten eta ureztatzen duguna biltzen denan.

G: Badakigu lasterka eta bizikletan ibiltzea oso gustoko duzula. Zure buruari eskatzen diozuna eskatzen al diezu zure jokalariei? Asko sufritzen zaituzte?

E: Hori haiek erantzun beharko dute! Jajaja. Ni kadetea edo jubenila nintzenean, entrenamenduak ez zeuden gaur egun dauden bezain espezializatuak. Horregatik naiz ni ere neurri batean eskola zaharrekoa... nire jokalariei errendimendu altuena ateratzea gustatzen zait. Baina futbolean, bizitzan bezala, zure burua berritu edo atzean gelditzen zara. Gaur egun ditugun instalazioei esker entrenamenduak asko hobetu dira, bai taktikoki, bai teknikoki. Alderdi fisikoa ez da dena futbol modernoan. Hala ere, onartu behar dut fisikoa egitea tokatzen denan latigoa ateratzea gustatzen zaidala.

G: 2010ean, Donezteben kuadrillen arteko futbol zazpi txapelketa bat antolatzekeo ideia bikaina izan zenuen. 5 edizio pasatu dira orduztik eta zonaldeko 10 bat taldek hartzen dute parte. Eguberritako agendan nabarmendutako ekitaldia da gazte askorentzat. Nola sortu zen ideia hori?

E: Urteak pasatu ahala, futbolean gehiago jokatzeko ez dagoela ohartzen da bat, zelaia handiegia delako edo atzetik heldu diren gazteei lekua uzteko. Baina futbola benetan gustatzen zaion bati pena ematen dio futboleko botak gordetzea. Are gehiago orain dugun futbol zelaia ikusita... (ikusita nahiko nuke bat baino gehiago lehen genituen legarrezko zelaietan jostatzen). Gainera, unibertsitatean lagunekin antzeko txapelketetan parte hartu nuen, eta horrek ekarri zidan burura hemen

antzeko zerbait egin genezakeela. Juntakoei komentatu nien eta ideia oso ona iruditu zitzaien. Onartu nahi dut ideia nire burutik atera bazen ere, juntaren laguntza gabe ezinezkoa izango zela txapelketa hau aurrera ateratzea. Haiek arduratzen dira zelaia, aldagelak, baloiak etab. prestatzeaz. Orain, bost urte beranduago, txapelketak pisu handia hartu du eguberritako agendan. Hurrengo urteetan parte hartzea mantentzea edo handitzea espero dugu.

G: Nola uste duzu eboluzionatuko dela txapelketa hurrengo edizioetan?

E: Uste dut txapelketa dagoeneko finkaturik dagoela. Hurrengo urteetan talde kopurua eta sariak handitzea nahi dugun aztertuko dugu. Jendeak formatu hau gustuko du, baina egutegia urtero aldatzen da eta datekin moldatu beharra daukagu. Agian, etorkizunean liga moduko bat antolatzen ahalko zen, baina hori oraindik oso urrun dago. Entrenatzaileak eta jokalaria Doneztebe F.T.-rekin konprometiturik gaude, eta txapelketaren ideia momentuz eguberritako geldialdian ere futboleko jokatzeko aitzakia izatea baino ez da. Ni bezalako "futboleko jubilatuek" futbolaz disfrutatzea, eta gazteenak haien lagunekin elkartu eta ongi pasatzea baino ez da helburua.

G: 2015 urtea amaitu berri dugularik, zein da urteko balorazioa? Eta zer eskatzen diozu 2016ari?

E: 2015ak lehenengo jubenil mailarako aszentsua ekarri zigun ekainean. Zenbait jubenilek erregionalekin debutatu zuten, eta hori atzetik datozenentzat motibazio handia da, lanean jarraitu dezaten. Zorionez, lesio larririk ere ez genuen izan, eta 2015 urte borobila izan zela erran dezakegu. 2016 urte honetarako ere Iñaki Indart futbol zelaian lesioak ez agertzea eskatzen dut. Eta ni, pertsonalki, nire agindupean dagoen jokalaria bakoitzak bere barruan duen onena ateratzeko eta zelaian dagoen bakoitzean dena emateko lanean arituko naiz. Modu honetan, proposatutako guztia lortuko dugula ziur nago.